


Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 35. zenb. 1997ko maiatza. 100 pzta.



24 ordu antxoaren arrantzan



**Fernando
Urain,
banda
zuzentzen**

**Datorren
urtera
arte!**



Argazki Elkarteak utzitako argazkia



GERRA ZIBILA ZUMAIAN

1936ko udazkenean Francoren gudalosteak Zumaian sartu behar zutenean, errepublikarrek zubi txikia dinamitatu eta bota zuten. Hala ere ez zen nahikoa izan, errez asko sartu baitziren gure herrian. Argazkiaren ezkerraldean militar eta agintari batzuk ageri dira, erretratu bat ateratzeko prest. Batzuen irribarreak beste batzuen samina eta tristura ekarri zituen.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzako Kultura Sailaren
dirulaguntza jaso du



ZUMAIAKOUDALAK
lagundutako aldizkaria



kutxa fundazioa
fundación

BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea

ZUMAIACO

GAZTE

BATZORDEA

lantaldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub taldea,

Natur Taldea, Jon Imaz,

Dani Carballo,

Bertso Eskola, Romu Artetxe,

Miriam Romatet, Ainara

eta konpainia, Amaia Benito, Jon

Manzisor, Igone eta Nerea, Josu

eta Arantxa, Asier eta Fran,

Ainhoa Iturbe, Mattin, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga-Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594


BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.



Ze berri?
**Barrako
konponketa
lanak**
.... 8. or.



Ze berri?
**Intsumisioa
goitik behera**
...9. or.



Gutunak:
Nahi adina
.... 4. or.

SAN TELMOAK GOGOAN

Badira gure bizitzan zenbait momentu hankak lurtean jartzeko; eta horietako bat momentu hau da. Hor segitzen al duzu Zumaia? Zer moduz zaude? Ondo zainduko zaituzte zumaiarrek ezta? Horren esperantza ez dut galdu. Beldurra ematen dit zure aldaketak ikusteko. Normalean ez dira onerako izaten.

Orain gainera arrantzalez jantzi zara urtero bezela. Eta urtero bezela alkoholez busti zara (eskerrak udaltzaingoko garbitzaileak onak direla). Zoramenerako egunak dira. Dantzak, tanborrada, betiko musika taldeak, jendeak sortzen duen itsaso urdina... Festak bukatu ondoren ere ahalegin guztiak egin ondo pasatzeko eta zaindu. Beste itsaso honetatik muxu bat bidaltzen dizut Zumaia eta beste besarkada haundi bat zure zumaiarrentzat.



**Esther
Martinez,
Galesetik
zuzenean**



PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia.....	86 02 48
Alkoholikoen senideak.....	47 54 03	Sexu-informazioa.....	32 04 44

ERRALDOIAREN ZAURIAK


Lehenengo kalteak gertatu zirenean, eraikuntza berriaren inaugurazioko hitz ederrak belarriz belarri zebiltzan artean. Esaldi eta diskurtso goragarriak airean kulunkatzen ziren bitartean, «rompeolasaren» pareko pretileko hainbat harritzar, bere lekutik atera eta, errioraino bota zituen itsaso zakarrak.

Geroztik, denbora eta eraikuntza berria lagungarri, betiko harritzar haiek utzitako hutsunera ohitu ere ohitu ginen. Erraldoi berriak txiki utzi du barra zaharra. Harritzko zangodun jigantea aurrezurre edukita, gauza asko bota daitezke faltan, baina ez da erreza harri faltarik somatzea. Harritzko harresiak ez du herritik itsasoa ikusten uzten. Olatuak harri artean galdu zaizkigu. Erria harritzko errebueta batean izkututzen zaigu. Horien lekuan harrobi antzeko eraikuntza izugarri bat azaltzen zaigu herritik begiratuta. Berak estali digu itsasoa. Horrek lapurtu dizkigu olatuak.

Izkutatutakoa zein ederra den jakiteko, ez dago jigantearen sorbaldara igotzea bezalakorik. Ze ederra!! Edertasunaren zorabioak eraginda, bada edertasuna eraikuntzari dariola pentsatzen duenik, ikusten duguna lehen ere han zegoela ahanztiz. Bertatik jeitsi bezain pronto orde, nola ez, erraldoiaren bizkar harritsua besterik ez dugu ikusten.

Itsasoaren mendekua ez da, hala ere, barra zaharrean kalteak eragitearekin amaitu. Udazkeneko denboraldi batek berriro ere kalteak ekarri zituen, oraingo honetan eraikuntza berrira. Ordutik, kezkatzeko

GUTUNAK



Atal honetan zumaiaarron ohar, iritzi, kexa guztiak bildu eta argitaratu nahi genituzke. Baldintza bakarra gutnaren luzera orrialde batekoa izatea da. Gutuna Forondara bidali edota Erribera kaleko buzoian utz dezakezu.

adina denboran zehar, barra-mutur berriko pretila, erorita, inork altxa zain, lurrean ikusi genuen. Hori gutxi balitz, sarrerako hondar pilaketak itsasoaren mendeku berriak iragartzen ditu.

Barra zaharrak urteetan jasandako utzikeria antzematen hasiak gara barra berrian. Denbora luze joan da konponketak egin dituzten arte. Dirudienez, Euskal Gobernuako agintariekin konponketetarako ez dute obra berrietarako adina borondate. Konponketek ez dute inauguraketek duten ospea. Daukaguna mantentzea ez dago berria egitea bezain estimatua. Egin beharra dago. Egitea bera da arrazoi. Kirol portua zela eta, Euskal Gobernuako bi departamenduen (Hirigintza eta Garraioa) arteko konponezinak erraldoi hau utzi digu herrian. Jigante hori eraikita gatazka irabazita ikusten zuten Garraio Sailekoek. Gaur, departamenduen arteko guda amaitu denean, zumaiazez gain, zein gogoratzen da jiganteaz?

Zauriak konpontzeko, oraingoan behar izan den adina denbora beharko al da gerora ere? Zertarako dugu?

Migel Aperribai



NI JAIETAN GUAY, ZU ERE BAI

Pasa berriak ditugun San Telmo Jaietan bizitako giroa ikusita, lehiaketa bat antolatzeko proposamena luzatzen dizuegu, hurrengo jaietarako (herrikoetarako nahiz inguruetoako balio dezake). Lehiaketarako oinarriak:

1. Helburua: Jaietako jarrera guayak zoriondu eta suspertzea.

2. Partehartzaileak: Herritarroi eta baita kanpotik hurbiltzen diren guztiei ere zuzendua dago; orain arteko erantzunak ikusita inguru hurbiletakoen partehartze zabala espero bada ere, jakin badakigu herrian benetako zaletuak badirela, eta hauentzat izango da sari berezirik.

3. Puntuaketa: sarituak aukeratzeko orduan kontuan hartuko direnak:

- Lurrera erortzeraino edo gutxienez botaka egiteko moduan izateraino mozkortzea.

- Edalontziak, botilak eta gainontzekoak tabernatik atera eta herrian zehar txikitu eta ondo zabaltzea.

- Tabernetakoak eta herriko komunak zabalik egon arren, txixa hormetan, kotxe artean, eskilara, espaloi, zuhaixka edo tankerakoetan egitea.

- Jaietarako ezarritako komun mugikorrak mugitzea; jendea barruan

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak




Zunbillo 4
Tlf: 861407

ROSI
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A
Tlf. 861670



Habana
auto



Mekanika eta
karrozeria

Axular ibiltokia, 14 - 86 00 70
Zumaia



egonik lurrera botatzerik bada hobe!

- Zuhaitzak, zuhaixkak, zakarrontziak, eta oro har, inguruan txikiketa.

4. **Merituak:** puntuaketa berezia izango dute:

- Txosnetako plastikozko edalontziak (eta gainerako zerrikeria) ibaira botatzea (azken finean, lurrera botatzea errezegia baita; eta zakarrontziak?? Tira!!).

- Txixa ondo aukeratutako lekuetan egitea: etxebizitzetako atea, taberna atariak, txosnetako hormak, komun mugikorren inguruak, denda atariak... habilidadea libre!

Izenematea, egunak, sariak... garaiz adieraziko dira, zaletuen artean lortzen den erantzunaren arabera...

(Norberak ikusiko du nola ulertu)

Kixkitze Z.



GESTIOAK

Egunero bezela, banator lanera, repetizioak pasa dira, dena normaltasunera berriz. Erdi lotan noa, baina, egia da, aspaldi neukan gogoia eta alkatea, Rikardo Peña, kirol portuko bulegora abiatzen ikustean, begiak zabaldutako zaitkit. Bulego barnean jende asko dabil (bilera «garrantzitsuren» bat). Ez naiz goizean mala letxean jeikitzen denetakoa, baina badago momentu hartan Zumaiako mala letxean jartzen nauden arazo bat (ai! bakarria izango balitz!). Zuzenean beragana: «Egunon, Rikardo; aizu, ze gertatzen da portuarekin?». «Ze

portu?». «Barkatu, moila, Gurutze Gorritik arranplarainoko pusketak». «Zer gertatzen zaio, ba?» -ja, ja!- «Ba lotsagarri dagoela, petatxo josita! Bizikletan pasatzeak beldurra ematen du eta!». «Eta zuk horrela, tonon hontan zergatik esan behar didazu neri?». Ni ia ez nago ziur pertsonaz nahastu naizen, ez duen nahi nirekin hitz egin edo Zumaiako alkatea aldatu egin duten ni ezer enteratu gabe. «Ba, Zumaiako alkate zarelako!». «Eta ezin al didazu galdetu ea gestioak nola doazen?». «Nola doaz ba?; aurrera ez behintzat!». «Bai urte t'erdia daramakigu gestioekin, paoleko obra bukatu zenetik» -gainera lotsik ez onartzen-. «Eta ezin al da zerbait egin, dagoen beharrarekin?». «Ez dezu pentsatuko gure dirutik 20 milioi jartzea (agian gehiago esan du, ez dakit) hori konpontzeko. Hor Puertosek dauka hitza!». «Baina udaletxeak presa gehiago sar dezake, dagoen bezela ikusita!». «Arazorik badezu gestioen mantsotasunarekin, Puertosgana zuzendu». (...) «Nik ez daukat Puertosera zertan joan behar!». «Eta gutxiago neregana horrela hitz egitera. Ezin zaitezke zuzenean nigana etorri modu hauetan, tonon honekin... zuk arazoren bat, frustrazioaren bat daukazu. Gainera ez zera bizikletan gehiegi ibili, ezin badezu hortik pasa!». (...) «Gertatzen dena da amorru asko ematen ditela udaletxe honek; kanean, plenoetan, Baleiken, bileratan... ikusten dezu ze behar dauden. Puxketa horregatik -eta mila gauza gehiagorengatik- idatzia du jendeak». «Baleiken, Baleiken... baina hori harriak airera botatzea da! Horrek ez ditu gestioak azkarrago eramango... egin behar duzuna da

Puertosera joan eta gestioengatik galdetu». (...) «Eta ziur egon 2 hilabetetan hasi eta eta udarako bukatu dagoela». «Ea egia den!... Rikardo bulegora sartzen da, gestio «garrantzitsu eta urgenteagoak» egitera. Ni azkenean mala letxean lanera.

Baleike hau, irakurri behintzat egingo duzulakoan, esan nahi dizut ez detela pentsatzen Puertosera joatea (zu aukeratu zaituzte Zumaiako agintari eta bozeramaile bezala, eta uste det herriar bezela zuri zuzendu ahal natzaizula); eta ez daukatela frustrazio pertsonalik (sistemak sortzen dizkidanak ezik). Badakit ez dela ohikoa alkateari kanean horrela hitz egitea, baina udaletxeak sortzen didan amorruak (agian frustrazioa, bai) egin du ni zugana tonon hontan zuzentzea; errespetu falta iruditutako bazeu, pentsatu zuk zumaiarroi diguzun «errespetuarekiko» erantzun bat izan dela. Badakizu non dauden herriaren beharrak (azaltzen uzten dizkiguzuenean behintzat) eta batzuk presa handia dute; gestioek azkarrago behar dute. Eta azkenik gestiotaz ari garela, zenbat luzatu ziren San Migeleko errepedea asfaltatu zutenean? Edo hori non galdetu behar det?

Izaga Garcia Alberro
N.A.N. 72.444.177

Hilabete honetan jaso ditugun gutun pila dela eta, hauetako batzuk ezin izan ditugu aldizkari honetan sartu. Saiatuko gara datorren hilabetearen zuen iritziak argitaratzen.



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

AIZMAN-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta
auzoa z/g
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24
20740
IRAETA -ZESTOA

**BELARDENDA
SIWA**



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behe
Tlf: 143404 - 860012

ZERTARAKO BALIO DU INDARKERIAK?

Jarraikoek diotenez beraiek dira euskal gaztedia. Beraiek bakarrik dabilta herri hau askatu nahian. Beraiek bakarrik dira euskaldun gazte abertzaleak. Beraiek dute arrazoia. GEZURRA!!!

Gu ere euskaldunak, gazteak eta abertzaleak gara. Gu ari gara Euskal Herriaren alde benetako lana egiten. Eta Madrilen lortzen diren akordioak ere Euskal Herriaren mesedetan dira, eta ez aurpegiratzen diguten bezela, errepresioa babesteko edo beste edozer gauzetarako. Abertzale izateko, ez dago indarkeriaren alde egon beharrik. Euskal Herriaren alde lana egin daiteke indarkeria erabili gabe ere eta hori argi eta garbi ikusi da azken urteotan. Zer lortu dute armen bidez? Pertsona bat hiltzen dutenean, Euskal Herria askeagoa al da? Banketxeak, ertzainen kotxeak edo aurrean jartzen zaien edozer erretzen dutenean, Euskal Herriaren alde egiten al dute? Nola uler daiteke, beren buruak abertzaletzat dituzten horiek, Euskal Herria puskatzea edo euskaldun abertzaleak hiltzea? Beraien erantzuna beti berdina da: «ez gaude demokrazian». Hori entzutean, guri galdera hauek etortzen zaizkigu burura: Beraiek demokratak al dira? Beraien metodoak demokratikoak al dira? EZ!!!

Beraz, nortzuk dira beraiek,

Zumaiako EGI

.....

guri demokratak ez garela aurpegiratzeko? Nortzuk dira beraiek, guri espainolak garela esateko? Argi eta garbi dago, gaur egun, zeinek ez dituzten betetzen demokraziaren arauak: ETAk eta bere ingurukoek, alde batetik, eta Espainiako alderdiek, bestetik. Bai alde batekoek eta bai bestekoek, bata bestearen parean jarrita daude orain. Alderdi espainolistei komeni zaie ETAk bere ekintzekin jarraitzea, horrela ondo bait dakite, indarra eta sinesgarritasuna galtzen ari dena abertzaletasun demokratikoa dela. Zertan dabilta orduan, indarkeriarekin jarraituz? Beraien etsaia Espainia baldin bada, nola arraio egin dakioke etsaiari horrelako mesedea?

Egoera hau nozitzen dugunak, benetako abertzaleak gara. Abertzaletasunak, Euskal Herrian duen indarra ezerezean utzi arte? Hori nahi al dute «salvapatrias» hauek?

Honekin batera, Madrileko gobernuaren jarrera ere gaitzetsi nahi dugu. Beraiek ere badute beren erantzukizuna gatazka honetan, nahiz eta beraientzat arazo bakarra ETA izan. Prentsaren aurrean azaltzen diren bakoitzean, Mayor Oreja, Iturgaiz eta horrelako pertsonaiek,

demokrazia hitza darabilte hitzetik hortzera. Ez dira ba beraiek, hitz potolo hori erabiltzeko egokienak. Hor daude torturak, hor dago baita ere, Euskal Autonomi Elkarte eta Nafarroaren arteko ituna nola utzi zuten bertan behera, hor dago euskaldunok gure eskubidea erabakitzeke dugun eskubidea aitortu nahi ez izatea, hor dago Estatutoa ere, hainbat denbora igaro eta gero oraindik betetzeko, etab.

Nahiz eta gaur eguneko demokrazia ez izan erabatekoa, ezin daiteke onartu indarkeriaren erabilera. Euskal Herrian zerbait lortu bada, hori indarkeriarik gabe izan da, eta oraindik gure helburu nagusira iristeko falta zaizkigun urratsak ere, ez ditugu emango indarkeriarekin.

ETA eta bere ingurukoek osatzen duten kopurua %15a besterik ez da. Beste %85aren artean, abertzaleak eta ez abertzaleak gaude. Nola lortu behar dugu abertzale sentitzen ez diren horiek gure proiektuarekin bat egitea? Nola ekarri behar ditugu berriro ere, lehen abertzale zirenak eta orain, nazkatuta, alde batera daudenak? Indarkeriarekin behintzat, inoiz ere ez. Merezki du hainbeste maite dugun EUSKAL HERRIAK horrelako ahalegina. Indarkeriarik ez balego, non egongo ginatke orain?

**GORA EUSKADI
ASKATUTA!!!**

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



ERTZ
INFORMATIKA
APIRILA-EKAINA
**WINDOWS
WORD-EXCEL**
Mendaro Mariñela 3
Tel./faxa 143395

**ORDENAGAILUAK
MULTIMEDIA**





MIKEL
LIZASO

Amerikan Topfori


Erretzaileei buruzko debatean muturra sartzea ez da samurra izaten. Antierretzaileen histerismoaren eta protabakotarrek egiten duten defentsa erasotzailearen muga horretan, noizbehinkako erretzaileek galtzeko guztiak izaten ditugu. Hala ere komentario honek ez du sakonduko erretzaile pasiboak zer nolako kalteak jasaten dituen edota emakume haurdun bat erretzearekin egiten ari den pekatuari buruzko debate aspergarri horietan. Tabako enpresei zuzendua dago. Estatubatuar tabako enpresei, hain zuzen ere. Orri hau betetzeko besterik balio ez duen proposamena denez, zuen kuadrilako iraultzaile, plastalari gupidagabe horri (ni neu kasu) koskorrak ikutzeko balioko dizulakoan.

Kontua da Estatu Batuetako tabako enpresek Clintonen gobernuari berrogei bilioi (Brekin, bai jauna) pezeta ordainduko dizkiotela erretzaileek jasaten dituzten gaixotasunei aurre egiteko. Diru kopuru hau guztira metatzen dutenarekin konparatuz barregarria izango dela imajinatzeke ez duzue Aita Apelesen intelijentziarik behar. Froga ezazu amerikako zapore genuinoa orain 40 bilio baitaude zure biriketako minbizia sendatzeko.

Erretzeari uztea pentsatzen ari denak hemendik aurrera badu beste arrazoi bat. Eta zu, azken Luckyaren kiratsa ahotik kendu ezin duzun, kuadrilako iraultzaile, plastalari gupidagabe eta amerikarren aurka kristonak bota dituen horrek (ni neu kasu), ere bai. Ez al litzateke zoragarria izango Marlboroko cowboya, zaldi eta guzti, oiloak perratzeraz edota Fortunako belauntzitxoak popatik hartzeraz bidaltzea?

Erretolika guzti hau bost axola zaizuenez, beste modu batera doakizue galdera. Iparramerikarrek gure osasunarekin egiten dutena jakin arren ez diozula erretzeari utziko eta tentazioari aurre egiteko ez duzula behatz bat mugituko jakinik, ez ote genuke egokiago Kubako habano goxo eta osasungarri bat erretzea? Nik baietz diot. Zure kuadrilako iraultzaile gupidagabe horrek ere hala beharko luke.


Herri Urrats



XABIER
AZKUE

Iparraldean traba eginez
badaude hainbeste lege
ikastoletan mila arazo
bizi irauteko ere
SEASKA eta gure hizkuntzari
egitekotan mesede
kontzientziadun elkartasunez
bete dezagun Senpere

Mauleko haurrak egon zaizkigu
arazo latza jasaten
etxerik gabe irakastea
ez baita erraza izaten
ea bonoak erosi eta
laguntza dugun ematen
EPERRA deitzen den ikastola
laster eraiki dezaten



ZUMAI A



AUTO-ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAIA



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Konponketa lanak barran



Barraren inaugurazioaren ondoren eta aurreko udazkenean itsasoak egindako kalteak ari dira konpontzen azken aste hauetan. Barran bertan egindako txikizioez gain, sarrerako harri batzuk ere mugituta zeuden. Aurrena, zati zaharreko harriak ibaitik atera eta jarri dituzte. Gero, muturreko lanekin jarraitu dute.

Autobus batek Paolbideko farol bat bota zuen

Gure irakurle batek bidalitako informazioaren arabera, San Telmotan autobus batek paol bideko bigarren farola bota zuen. Barruko bidetik joan beharrean, txosnen aurretik igaro nahi izan zuen, eta ondorioz txosnen argindarraren kablea jo zuen. Batek baino gehiagok pentsatuko zuen orain ere «gazte horiek» izango zirela,



ZALLA
Taberna - Erretegia
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Paki 
Belardenda
OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Aldaketak larrialdi zerbitzuan

Apirilaren 10ean kontzentrazio bat burutu zen Donostian Osakidetzako egoitzaren aurrean, larrialditarako sendagilea eskatzeko. Orain, ordea, badirudi aldaketa batzuk egon direla eta maiatzetik aurrera herrian bertan sendagile bat izango dugula, nahiz eta beharrezkoa denean beste herrietara ere mugituko den.



Obra intsumisoak



Hil honen 3an *Gu Ez Goaz* talde antimilitaristak intsumisioaren alde antolatutako ekitaldi bat izan zen Erribera kaleko obretan. Bi gazte bertan dagoen gruara igo eta intsumisioaren aldeko pankarta bat ezarri zuten. Ez zen oso lan erreza izan, altuera horretan ibili beharraz gain, haizeak ere momentu batzutan gogor jo baitzuen.

KUBARAKO ESKOLA MATERIALA

BizHitz eta Elan-Euskadi taldeek Kubara materiala bidaltzeko kanpaina bat antolatu dute. Eskoletan egingo da bilketa nagusia eta eskola materialaz gain (koadernoak, boligrafoak...), garbiketarako gaiak (xaboiak, esponjak...), ospitaletako materiala (botikak, gasak, betadine..) eta baloiak jaso nahi dira.

Iazko urritik hasita botikak, inkubadorak, eskola materiala, idazmakinak, mahaia eta beste hainbat gauza bidali dira.

IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ANA
ETXETOKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
Tel. 861157

Mai aur
jolastokia

Urola eta Narrondo ibaiak aztertuko dira Ibaialde programaren barnean

Ibaialde programa Azterkostaren oso antzekoa da, baina kasu honetan EAEko ibaiak dira aztergai. Aurtengoa II. edizioa da eta bertan 200 taldek eta 5 mila lagunek hartuko dute parte.

Helburua, ibaien azterketa egiteaz gain, hauen ezagupena eta kontserbaziorako jarrerak bultzatzea da. Talde bakoitzak 5 kilometroko zati bat aztertzen du. Besteak beste, uraren tenperatura, kutsadura, bizidunak eta zabor motei buruzko datuak hartzen dira, gero inkesta bat betetzeko. Inkesta guztiak txosten bat idazten da, gero instituzioei bidaltzeko.

Zumaian, bi taldek hartuko



dute parte. Institutuak Narrondo ibaia aztertuko du eta Ingurugiro tailer-eskolak Urola ibaia, Kondekuatik Aizarnazabaleraino. Aipatu behar da Gipuzkoa mailan Zumaia Natur Taldea dela talde guztien koordinatzailea.

Urola-Kostako haurrek zaborren gestioa ezagutzeko aukera izango dute

Gure eskualdeko 6. mailako haurrek zaborrak nola gestionatzen diren ikasiko dute hilabete honetan zehar. Kanpaina hau gure Udal Elkarteko Ingurugiro tailer-eskolak eramango du aurrera. Ikasgelan jasotako ezagupenez gain, Urtetako (Zarautz) zabortegira bisitaldia egingo dute, bertara eramaten baitira Urola-Kostako zabor guztiak. Gainera, komiki eta muralen lehiaketa batean parte hartuko dute.

Kanpaina honekin, gure haurrek zaborren gestioarekiko eta ingurunearekiko jarrera egokiak barneratzea nahi da.

Bestalde, hilaren 19an Zumaia Garbia kanpaina egingo da. Haurrak, urtero bezala, herriko bazterrak garbitzen ahaleginduko dira. Marrazki lehiaketa ere egingo dute, eta irabazlearen lana datorren urteko kamixetan jarriko da. Beste ekitaldi batzuk ere egongo dira.

Gizarte eskubideen gutunaren aldeko ekimena

Bizkaiko Gogoa, Gipuzkoako Eraiki eta Laudioko Elkartasuna plataformak, giza erakunde gehiengoaren parte hartzearekin, Eusko Legebiltzarrari, langabezia eta pobrezia-aren aurkako lege proposamena aurkeztu diete.

Gizarte eskubideen aldeko gutun honen bidez, guztiontzat eskubide berberak eskatzen dituzte, eta horretarako lana banatzeko lege bat eskatzen da..

Bi ideia xumetan oinarritzen da:

1.-Lan banaketa; aldizkako kontratuak lanpostu finko bihurtuz eta enplegu aniztasunarekin bukatuz, jubilazio adina 60 urtera jeitsi, ordu estrak desagertu eta asteko lan orduak 32ra jeitsiz.

2.-Oinarritzko giza errentarako duen eskubidea onartzea, errenta honek lanbide ezberdinen arteko gutxieneko soldataren parekoa izan beharko luke.

Errebindikazio hau Eusko Legebiltzarrari zuzentzen zaio eta legegintza ekimen hau lortzeko 30 mila sinadura behar dira.

Guztion arazoa denez, Zumaian ere ekimen horretan aktiboki parte hartu ahal izateko kalean sinadura bilketa egingo da, hil honen 10ean eta 11n.



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAIA



DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK



ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategi, 10 behe
Telefonoa: 862051

**SUKALDEKO
ALTZARIAK**

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)



ANA
ELIZEGI

Zure ezpaineak musukatzen naute,
zure besoek besarkatzen eta zure
begiek mintzen naute.



IBON
MANTEROLA

Zu ikustearekin bakarrik
zoriontsu jartzen naiz.



DANI
CARBALLO

Emmm... nik zugandik sentitzen
dudana ez dut inorengandik sentitu
eta horrek esan nahi duena zerbait
serioa da... Maite zaitudala esan
behar badizut esango dizut, baina ez
iezadazu eskatu berriro esatea.



AITOR
AZPITARTE

(Kantua) Una rosa en tu pelo parece
una estrella en el cielo, y en el
tiempo parece un asiento tu voz
musikal, y parece un destello de
luz la medalla en tu cuello al
menor movimiento de tu cuerpo al
andar... (jarraitu egiten du)

Bota maitasun mezu bat!

(San Telmotako lehen
asteburuko gau batean lortutako
mezuak)



LEIRE, IGONE, LIBE, MIREIA,
ARRI, MENDI, GONTXALO

Izugarrizko hotza sentituta ere
muxe bero-bero bat doakizue
datorren San Telmotan elkar
berotuko garenaren itxaropenez...
mua, mua, mua (Patxi eta Itziarri)



IGOR URANGA

Maite zaitut pila bat, zuk zeuk ere
ez dakizu zenbat maite zaitudan. Zu
neretzat zea larrosa baten
petaloaren ainako korpulentzia
duzun... nola esango nizuke, era
berean esango nizuke... izugarrizko
korpulentzia.



INAZIO
TOLOSA

Mua, mua, mua... muxu, ai, mua.

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15
Tel. 862458



diseinu grafikoa
kreatibitatea
inbdi korporatiboa
maketazioa
diseinuaik
Jorge de Navea

Julio Boobide, 2 ZUMAIA Tel. 88 28 05



Juan Belmonte 6
ZUMAIA Tel. 860415

Mendian larrartean... San Telmoak 97




...aurkitzen da
loretxo bat, aurrean
umetxo bat loretxoari
begira.
Loreak esan nahi
dio umetxo aska
nazazu, jaio naiz li-
bre izateko ta ez
loturik egoteko.



OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Amertze

Erribera kalea 6
Tel./Faxe: 861707



*Umetxoak ikusirik
lorea ezin bizirik,
arantzak kendu nahi
diskio bizi berri bat
eman.*

*Orduan isango baitu
indarra eta kemena,
orduan emango baitu
ugari bere fruitua.*



*nanana nanana,
nanana nanana
nanana nanana
nana, nanana
nanana, nanana
nanana, nanana
nanana nana...*

GAZTEOK UDALAREN PORTAERAREKIN KEXU

Orri honen bitartez, Zumaiaiko Udalak San Telmo hauetan izan duen portaera salatu nahi genuke. Izan ere, programa esku artean hartuta badirudi udaletxea izan dela festetako ekintza guztiak antolatu dituen; ez antolamenduan lagundu duten taldeen aipamenik, ez ezer.

Ba, hori ez da egia. Udaletxea ez da programan ageri diren ekintza guztien antolatzailea izan, ezta babeslea ere.

Beste hainbat talderen artean, Gazte Batzordeak ere hainbat ekintza eraman ditu aurrera, eta ez hori bakarrik, ekintzaren batean dirua berak jarri behar izan baitu, udaletxeak emandakoa ekintza aurrera eramateko aski ez baitzen.

Ekintza batzuei laguntza xixtrina ematen dien bitartean, beste batzutan dirutza botatzen dute. Hau ez da justua, baina gure salaketa ez doa bide horretatik. Diru gutxi ematen dutela, ba saiatuko gara beste lekuren batetik ateratzen. Uste dugu berandu baino lehen konturatuko direla egiten dituzten aldrebeskeriez. Baina gutxienez hurrengo batean ez dezatela festetako programan rock kontzertua aipatu, lotsa apurrik badute behintzat. Izan ere Udalak emandako diruarekin hamar txupatxus erostea ere ez baitugu lortu, kontzertuaren finantzaketa Gazte Batzordearen eta beste txosnen gauza izan delarik.

Zumaiaiko Gazte Batzordea

ILE APAINDEGIA

Merca
Uranga

Etsezarreta, 19
Telefona: 862342

20750 ZUMAIA

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu 2
Tel: 143089

ZUMAIA

LOREDE NDA

LANDAREAK

LOREAK

HAZIAK

ZERAMIKA

Erribera 1 Tel. 860375

Musika klasikoaz gain salsa maite duen 25 urteko debar honek betetzen du urte hasieratik Antonio Tapiak (eta denbora gutxian Marixi Sesmak) Zumaiako Bandan utzitako hutsunea. Banda direkzioa ikasten ari den eta tronpetako goi mailako ikasketak eginak dituen gazte honek gure

Fernando Urain

herrikoaz gain Debako banda ere zuzentzen du. Itxura berri bat ekartzearekin batera, zumaier musikarien buruan musikarekiko ikuspuntu berri bat sartu nahi du. Hau da, besteak beste, Fernando Urain, bandako laguntzat «Fefe».

«Banda hobetzea da nire helburua»

NOLA IRITSI ZARA ZUMAIKO BANDA ZUZENTZERA?

Badira urteak Debako banda zuzentzen dudala, eta horren arabera deitu zidaten ea Zumaiako banda zuzentzeko prest nengoen. Eta egia esan ideia gustatu zitzaidanez, hemen naukazue Zumaiako.

NOLAKO MAILA AGERTZEN DUTE BANDAKO MUSIKARIEK?

Orokorrean, musika eskola gehientsuenetan bezela, nahiz eta horrek ez duen esan nahi maila egokiena denik. Baina maila horrekin ere egin daitezke gauzak, asko landu ondoren noski. Banda barruan ere badaude ezberdintasunak: batzuk gehiago ikasten dute, hobeto jotzen dute... baina bueno!

ZUMAIKO BANDA ZUZENTZEAZ GAIN, ZER EGITEN DUZU?

Tronpeta ikasten dut, Valentziara joaten naiz tronpeta ikastera eta direkzioa ikasteko intentzioarekin nabil, nahiz eta urte dexente izan. Talde batean ere jotzen dut, Debako banda zuzentzeaz gain.

TAPIAK BANDA UTZI ONDOREN SARTU



Astearte eta ostiraletan izaten dira Bandako entsaioak.

IZANAK IZAN AL DU ZUGAN ERAGINIK?

Ez, ni guzti horretatik aparte nago. Ni beste zuzendari bat ordezkatzera etorri nintzen, eta gertatutakoaren arrazoieta ez naiz sartzen eta gainera ez daukat zerikusirik. Ni, nere lana egitera etorri naiz.

ZER NOLAKO MAILA UTZI ZUEN TAPIAK BANDA UTZI ZUENEAN?

Maila ona utzi zuen, baina nere ustez maila ez dago zuzendariaren menpe bakarrik. Nahiz eta zuzendariak zerikusi haundia izan, musikoei ikasten

dutena ere garrantzitsua da banda baten maila adierazteko orduan.

ZE HELBURU DUZU BANDARENTZAT?

Nire helburua banda hau hobetzea da. Nere ustez garrantzitsua da bandako partaideek musikarekiko duten pentsatzeko era aldatzea, kontzeptu tekniko, musikal eta bibentzialak beraiek egiten duten musikarekin erlazionatzera iritsiz. Hori da gehienbat lortu nahi dudana.

EMATEN DUEN BEZAIN ERREZA AL DA BANDA BAT ZUZENTZEA?

Ez horixe. Zuzendariak eskue-



Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA



DENDA: K. Nagusia, 6 - Telf. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1ª - Telf. 14 34 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK



ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
Telefonoa: 862051

SUKALDEKO
ALTZARIAK

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

«Garrantzitsua da bandako partaideek musikarekiko duten pentsatzeko era aldatzea»

kin egiten dituen mugimenduak, hau da, kanpotik publikoak ikusten duena adierazgarria da, baina zuzendari baten lana ez da horretara mugatzen; entsaioetan egiten da benetako lana aktuazio bat ondo irtetzeko.

ZUMAIATIK KANPORA JOTZEKO ASMORIK BA AL DUZUE?

Maiatzaren 11n Zallara joateko intentzioarekin gabiltza. Banden arteko lehiaketa ere badago, nahiz eta banda gutxi ausartu bertara joaten. Horretarako entsaioetan matxakatzen gabiltza, eta oraindik gehiago matxakatu behar dugu.

BANDA HONETAKO ZUZENDARI IZATEAREKIN BIZITZEKO ADINA DIRU ATERATZEN AL DA?

Ez, ezin duzu honekin bakarrik bizi, baina laguntza bat da. Banda herrikoi bat profesionala izatea nahiko zaila da eta ondorioz, banda ez-profesional bateko zuzendaria bakarrik izanda, zaila da diru kopuru ona ateratzea. Baina, bueno, ondo dago!

ZE MUSIKA ETA MUSIKARI ATSEGIN DITUZU?

Musika klasikoa eta, baita ere, salsa musika gustokoak ditut. Kanta konkretu batzuk ere gustokoak

ditut. Musikarien artean, Malher Sandoval salsa tronpetista moduan eta Ruben Blades letra eta musika egiten ere oso ona da. Hori bai, bakallaua ez dut batere atsegin.

LOOK ALDAKETA BAT EGON DA BANDA KO ZUZENDARIAREN ALDETIK ZU IRISTEAN: ILE LUZEA...

Ni 25 urteko edozein gazteren modukoa naiz. Batzuk injineruak dira, besteak arkitektoak edo igeltseroak, eta ni musikoa naiz. Horixe da ezberdintasun bakarra, ze bestela edozein gazteren modukoa naiz: juergak botatzen ditut... Gainera kontratuan ez

zidaten itxurari buruzko exigentziarik ezarri.

EZ AL ZAIZU GEHIEGIZKOA IRUDITZEN, BAI ZURETZAT ETA BAI BANDA KO PARTAIDE GUZTIENTZAT, FESTETAN HAINBESTE EKITALDI KULTURALETAN JO BEHAR IZATEA?

Banda batean jotzeak bere alde onak eta txarrak ditu. Musikoei gutxien gustatzen zaiena tanborradan jotzea da, ze musika aldetik zero bat da. Baina udaletxeak dirua ematen du eta... Obligazioz hartu behar izaten dute parte prozesioetan eta antzeko ekintza kulturaletan, nahiz eta beti bakarren bat ez azaldu... ■



Festetan lan ugari izaten dute bandan, baita ihauetrietan ere.

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

JOSEBA OSSA

-ITZULPENAK-

euskara-gaztelera-katalana -
ingelese-frantsesa

Tel-Faxa: 148306-148065


MAITE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278







END

**Apirilak 14.
Goizeko 8,30ak
dira eta
Getariako bapore
guztiak itsasora
ateratzeko ari
dira prestatzen.
Ni, San Telmotan
fin aritzen den
lehorreko
arrantzale
horietako bat,
«Berriz Irigoien»
untziaren bila
nabil, bertan
izango baitut nire
lehen
esperientzia
itsasoan.**

24 ordu antxoaren arrantzan



Berriz Irigoien baporea Getariko berrienetakoa da, iazko abuztuko.

Eguraldi ederra egiten du, eta itsasoa ere bare dago. Eskerrak. Hala ere, zorabioaren kezka ezin dut burutik aldendu. Eta bidaia oso arrainei jatekoa ematen pasatzen badut? Argazki natural bat ateratzeko gauza ere ez banaiz?

Topatu dut baporea,

iparraldeko moilan. Ni iristerako arrantzaleak dena prestatzen ari dira. Eugenio Irigoien, patroia, ez da oraindik iritsi, baina bere bi anaiak, Juan Carlos eta Txato bertan dira dagoeneko. Trasteak utzi eta irteerari itxoitea baino ez zait geratzen.

Azaldu da Eugenio, eta agurtu eta dena prest dagoela ikusi ondoren, bagoaz, itsaso zabalera antxoa freskoaren bila. Ni, xano-xano, baporearen aurrekaldean jarri naiz, proan, toki egokiena izango delakoan. Gizarajoa! Kaia utzi bezain laister «Berriz Irigoienek»



**inportaturiko erropa
eta artisautza**
Basadi 3 Zumaia

TXOKOA



T
B
E
R
N
A

*Artadi
Auzoa*

86 21 89



AIZPURUA

L
I
B
R
U
D
E
N
D

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAILA

OPARIK

abiada apur bat hartu eta hortxe hasi zait gora ta behera, gora ta behera, ferietako dragoi madarikatu horietako baten antzera. Tente jartzeko gauza ere ez naizela uste dut! Kemena bildu eta mozkor baten antzera Eugeniorengana hurbildu naiz, *puentera*. «Eugenio, ez daukak hemen makina eta pantaila gutxi. Azalduko al didak bakoitza zertarako den?». Nola ez, gustora gainera. Eugeniok banan-banan erakutsi dizkit guztiak. «Berriz Irigoien» baporea Getariko berrienetakoa da. 96ko abuztuan estreinatu zuten. Aurreko baporearekin alderatuz askoz eroso eta modernoagoa da. Esan daiteke puentean hiru eratako gailuak daudela. Alde batetik, nabegazioarekin loturik daudenak. Aipagarriena da kartografia sistema digitala. Pantaila batean itsas karta guztiak daude. Bertan ikusten dugu gure kokapena eta markaturiko norabidea. Baita ere edozein punturen koordenadak, puntu batetik zenbat milletara gauden... gure kostaldeko baserriak ere agertzen dira! Ikusgarria. «Lehen itsas kartekin ibiltzen gintuan, baina orain hor zeuzkat, gordeta. Hori bai, horiek erabiltzen ere jakin behar dek». Sistema honetaz gain radarra dago. Honekin gure inguruan dauden baporeen kokapena ikus dezakegu. Beste alde batetik, arrainak topatzeko sonarrak daude. Batzuk bertikalean emititzen dute uhina; besteek horizontalean, aurreruntz edo alboetara. Uhinak

**Harrigarria bada ere,
aurten antxo
Japoniara saltzen hasi
dira.**

arraina topatzen dutenean pantailetan ikusten dugu, mantxa modura. Baporetik ze norabidean eta ze sakoneran dauden ikus dezakegu. Eta azkenik, komunikaziorako gailuak daude: irratiak, telefonoak etab. Eguraldiaren parte jasotzeko aparailu bat ere bai.

Irratitik etengabe entzuten dira mezuak. Eugeniok honako azalpena ematen dit. «Guk koadrilatan funtzionatzen diagu. Batek zerbait

topatzen dikenean besteei deitzen ziek. Gertatzen dena dek klabe edo kode bat izaten diagula, besteek ez entzuteko. Hala ere, besteen kodeak asmatzen saiatzen gaituk euren elkarriketak entzuteko».

Eugenio oraingoz agurtu dut, eta behera noa, arrantzaleen artean ze giro dagoen ikustera. Oraingoz ez da mugimendu handirik. Joxean sukaldean ari da lanean, baina batzuk prestatzen. Hernaniarra da, baina itsasoan urte asko daramatxala igertzen zaio. Solaserako gogoa du. «Orain antxoaren garaian bakoitzak bere janaria ekartzen dik. Gero, atunetan patroiak jarri behar dik jatekoa. Atunaren arrantza askoz politagoa dek ikusteko, kainarekin izaten baituk.



Juan Carlos bere anaia Eugenioren erreleboa egiten puentean.

**AHOLKULARITZA
IRURE**

GESTORIA

Erribera, 17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel. 861485

English School
Harvest

Ingeles ikastaroak urte guztian zehar

I. Zuloaga 1, 2-B Tel. 143334



Salabardo handiarekin jasotzen dute antxoa baporera.

Antxoarenak ez dik aparteko gauzarik». Berarentzat agian ez, baina ni ikusteko irrikitan nago. Txakurra azaldu da sukaldara. *Haitz* du izena, eta bi hilabete zituenetik ekarri zuen Joxeanek baporera. 18. gizona da *Haitz* baporean. Arrantzaleak lo direnean, bera lo; lanean direnean, berak ere lan. Bere erara, arrainei so, bueltaka batetik bestera arrantzaren ugaritasunaz aztoraturik. Lanean azken finean. Eta hala ulertzen dute bere lankideek. «Atunetan, askotan atuna bizirik zegokela lepoan kozka egin eta odola ateratzen ziek. Edo arrain bitxi bat harrapatzen diagunean zaunkaka hasten dek eta eraso egiten zio».

Bazkalostea da eta antxoarik ez da ageri. Arrantzaleak euren *kamainetan* dira atseden hartzen, antxoa agertzen denean lana

gogotik egin beharko dute eta. Neuk ere neure kuluxkadatxoa bota dut, zorabioaren mamuaz dagoeneko ahazturik.

Eguzkia sartzera doa. Olatuaren aparrak ardo kolorea hartu du; baina antxoaren arrastorik ez sonarrean. Bapore guztiak gune berean bildu dira eta noraezean dabilta. Une honetan, 43° 40' iparraldera eta 2° 13' mendebaldera gaude kokatuak. Ekialdera egitea erabaki du patroiak. Irratitik «mekaguenka» hasi direla somatzen da.

Euskaldunez gain, kanta-briarrak eta galiziarak badira inguruan. Frantsesak oraindik ez. Ekainean hasiko dira hauek. Martxoa eta ekainako lehen erdia bitartean aritzen dira gure arrantzaleak antxoan. Gero, atunarekin jarduten dute udazkenara arte.

Martxotik ekaineko lehen erdia bitartean aritzen dira gure arrantzaleak antxoaren arrantzan.

Eugeniok azaldu didanez, Frantziako kosta oso aberatsa zen, baina sare pelagikoeekin izugarritzko ustiaketa egin dute. «Sare horiekin nahi diaten sakontasunera iristen dituk, hondoraino ere bai. Legatza, bixigua eta bestelakoak ia desagertarazi dizkiatenean hasi dituk antxoarekin eta atunarekin. Eta honela jarraitzen badiate hauek ere agortuko dituk». Dagoeneko desagertu direla dirudi, sonarrean ez baita oraindik antxoarik azaltzen. Bitartean Eugeniok gauza gehiago kontatzen dizkit. «Ba al dakik antxoa asko nora ari deken saltzen? Japoniara! Lehengoan erosle batek esan zidan eta harrituta utzi ninduan. Berdela berriz *surrera* eramaten dek. Han atuna loditzeko erabiltzen diate. Kilometro askoko sareak erabiltzen dizkiate han, eta behin atuna barruan zegokenean, berdelarekin asetzen dizkiate, kiloak har ditzaten».

Gaua. Antxoa guztiek zerura ihes egin dutela dirudi, normalean baino izar gehiago ageri baita. Hale-Boop kometa ere hortxe da oraindik. Ur gainean berriz, hiri baten erdian gaude, chundaka argiz



ILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxes. 860169



inguraturik denak ditxosozko antxoa noiz altzako zain.

Ordu bata. Lo pixka bat egitera noa. *Kamainan* sartu eta ia begiak ixteko denborarik gabe, booooo! sirena deika. Agertu da azkenean! ziztu batean jaiki eta goian naiz detailerik ez galtzeko asmoarekin. Patroiak botea uretaratzeko agindua eman du. *Txato*, Irigoienarretan gazteena doa bertan. Eugeniok sonarreen ikusten du non dagoen antxoa, eta mikrofono baten bidez bere anaiari esaten dio non kokatu behar den. Baporeko argiak itzalita daude; botekoak piztuta. Behin arraina boteko argira erakarri ondoren, baporean sarea botatzen hasten dira, botea inguratzen duten bitartean. Gero, poliki-poliki sarea biltzen hasten dira, orain argiak

piztuta ditzuztela. Sareak bere eremua markatzen duten argizko balizak ditu, beste baporeek ikus dezaten. Zer etorriko ote da sarean? Arrantzale bihurturiko *Haitz* artzain txakurra ere urduri dago, karelera igota uretan ager daitekeenari begirik kendu gabe.

Eta bapatean, hortxe azaltzen da antxoa desiratua, dir-dir eginez. Batzuek salabardo handiarekin untziratzen duten bitartean, besteek izotza prestatu dute, fresko-fresko mantent dadin. Antxoa guztia bildu ondoren, kajetan jaso beharra dago, tamainaren arabera. Batzuek lan hori egiten duten bitartean, besteek sarea berriro botatzeko moduan prestatzen dute. Denborarik galdu gabe, Eugeniok berriro egindua eman du. Berriro pauso berdina. Hirugarren aldiz ere bota dute

Arraina boteko argira erakarri ondoren, baporean sarea botatzen hasten dira, botea ingurtzen duten bitartean.

sarea. Oraingoan berdela ere sartu da antxoaren artean, 4 bat kaja.

Goizeko 5,30ak dira. Antxoa sailkatzen eta gordetzen jarraitzen dute. Guztira 80 kaja bildu dituzte gaur, 2.000 kilo pasatxo. Aurreko egunekin konparatuz, gutxi. Inguruko antxoa agortu dela dirudi eta beste toki batean probatu nahi dute portura sartu baino lehen. Bapore askok alde egin dute etsita, ia ezer harrapatu gabe eta mekaguen ugari bota ondoren.

Baina gaur itsasoak ez du ezer gehiago eskeintzeko. **Egunsentia da** eta «Berriz Irigoienek» Getariko arratoiari begira jarri du bere proa. Laister izango gara lehorrean, nire eremuan, ni San Telmotan fin aritzen den lehorreko arrantzale horietako bat baino ez bainaiz. ■

Gorka Zabaleta



Joxe Mariren aurretik, Gotzon Yeregik eta Joxe Joakin Aizpuruak egin dute lan «Berriz Irigoienek».

Erreportaia hau Urola-kosta Udal Elkarteko Ingurugiro tailer eskolari esker egin ahal izan da. Itsas-Garbia kanpainaren barnean, erreportaiaren egileaz gain eskolako beste hiru ikasle izan ziren itsasoan 24 orduz, «Berriz Irigoien» eta «Beti San Agustín» baporeetan. Eskerrak eman nahi genizkieke bi baporeetako patroiei eta arrantzaleei.

Alberdi
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155



BASADI-TUSTATEGUIA, 4-A
ZUMARRA
TEL. 862061

HARTATEGI
URDATEGI

ENTER INFORMATIKA
BALZAR DE ETXABE s/g
ZUMAIA
☎: 86.11.75
☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA
SERBITZU TEKNIKOA
HARDWARE ETA
SOFTWARE
INFORMATIKAKO KURTZOAK



Santixoko padura

Kostaldeko dunek habitat guztiz berezia osatzen dute, eta hau kolonizatzen duten landareak hain espezializatuak eta halako ingurunera ongi moldatuak izaten dira, ezen ez baitira gehienak handik kanpora beste inon azaltzen.

Dunak bi zatitan banatzen dira; goikaldean, lehorralderago hondarra nahiko ongi finkatuta aurkitzen da eta gatz etorria oso txikia izaten da. Bertan zoruaren landare-estaldura aurreko zonetan baino zarratuagoa da eta berez itsasertzekoak ez diren landareak sortzen dira.

Santixon goikaldean aurki ditzakegun landare aipagarrienak honako hauek dira:

- *Laburus ovatus*
- *Sedum acre* (Teilatu belar-min)
- *Festuca rubra*
- *Thymus spp.*
- *Dinthus morspessulanus*
- *Helichrysam stoechas*
- *Onoris repens*
- *Pinus pinaster* (itsas pinua)



Itsasotik hurbileneko zirrindan, berriz, hondartza bustia, gazia eta gutxi-asko eutrofizatua egoten da; han bizi diren landareak aipatzeko:

- *Eryngium maritimum*
- *Cakile maritima*
- *Calystegia soldanella*
- *Euphorbia paralias*
- *Carex arenaria*

Hauek dira garrantzitsuenak, eta azkena da hondartzaren lehen zatia kolonizatzen duena.

Landareetaz aparte, ekosistema

berezi honetan, hegazti, narrasti, perretxiko eta intsektu interesgarri ugari aurki daitezke.

Gaur egun jasan duten giza presioaren ondorioz (urbanizazioak, bainularien etengabeko etorriak, txomingeroak, etab...) Euskal Herrian duna gutxi batzuk geratu dira eta erabat desagertzeko zorian daude.

Hau dela eta Santixoko dunaren garrantziagatik babes eta errespeta ditzagun.

Zumaiako Natur Taldea



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780



MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

Axular 14
20750 ZUMAIA

Telefonoak:
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- * Banakoak
- * Kolektiboak
- * Satellite bidezkoak
- Ateak automatikoak
- Eta abar.



diseinu grafikoak
kreatibitateak
inudi korporatiboak
maketazioak
diseinuak

Julio Berrido, 2 ZUMAIA Tel. 86 26 05

Ispiluan ZER irudi?

Ispilua izan dut gaur nere irudiaren erakusle. Jaso dudan irudia polita kontsideratzen denarekin ez dauka zer ikusirik. Zatikatua sentitu dut nire gorputza eta ezezaguna hein haundi batean modura polita, mitxelin gehiegi, hanka motzak, ipurdi lodia, aho txikia, hortzak sekulakoak. Neure irudiaren osotasuna ez dut aurkitu! Eta klitorisa, beheko ezpainak eta magina, non daude? Nola eskeini nire plazerra neretzakoa ukatua daukadanean?

Gorputza zatitua daukat, badira ukatuak ditudan gorputz zatiak. Ez dut nere gorputza ezagutzen. Neure irudia beste batzuekin konparatuz eraikia dago. Ispiluan begiratzen naizen bakoitzean badu ezagutu nahi dudana zerbait. Nola bilatu nere plazerra? Ispiluak neure irudia bueltatzen dit. Bere aurrean egonik

nere gorputza ezagutzeko aukera ederra daukat. Ispiluak erakusten didana ni naiz. Eta ni plazerra naiz. Ileetatik hasi eta oinetako behatzetaraino badut zer ikutu. Modua eta erritmoa nik asmatutakoak dira. Ikutu bakoitzean sentsazio berriak pizten dira nere baitan. Sentsazio hauek

nereak dira. Plazerra nik daukat. Zergatik beste nonbait bilatu? Orduak, egunak eta bizitza guztia dut nere sentsazioen berri jakiteko. Ezagutu ahala nere plazerra eskeintzeko aukera

haunditzen da. Nork ezagutu dezake nik baino hobeto nere gustokoa den hori? Nere gorputzaren ezagutzak askatasuna ekartzen dit. Nik plazerra eskeini dezaket eta gustokoa dudana eskatu... Horrela ez dago ezer ukatzekorik, aukera egitea besterik!

Ainhua Iturbe



Malkoak isurtzen dira hainbat eta hainbat izakien aurpegi zurrunen barrenetik. Oinarrian edertasuna eta alaitasuna sortarazi behar zuen horrek ekaitz izugarriak sortarazten ditu, bapatean dena nahasten da! Gaur argia ikusi dut, ekialdetik emakume ugariaren buru ederrak, ikusten ditut, eta mendebaldean gizonen aurpegietan goxotasuna eta umiltasuna ikusi dut

Haizeak poliki-poliki sexualitate aske baten usaina dakar.

Itsasoak gure gorputzei zentzu berri bat aman nahi dio. Irudiak, bere lekua uzten digu bertan bata bestearekin elkar ezagutu dezagun...

Urak, gure egarria asetu nahi du, bere jakintasunez gu busti nahi gaitu.

Pixkanaka pixkanaka sexualitatearen inguruan haizeak askatasun usaina dakar

ANA

SOLOZABAL AUTOESKOLA



P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



Loitz

Erribera 4
Tel./Fax:
143422

- *Eskola eta bulegorako materiala
- *Enkoadernazioak
- *Fax publikoa
- *Aldizkari eta opariak



PALA TXAPELKETA BIGARREN FASEAN

Txapelketako lehen zatia amaituta, sartua da jadanik bigarren fasean, eta hemendik aurrera gehiago jakingo dugu zeintzuk izan daitezkeen txapelketa bereganatzeko aukera handienak dituzten bikoteak. Emakumezkoak ere hasi dira lehia bizian. Kontuak kontu, honela geratu dira bigarren fase honetako taldeak

SAN PEDRO SARIA (Gizonezkoak)

A taldea

Gorostola-Aizpurua
Ostolaza anaiak
Alkorta-Urbieta
Etxabe-Lazkano
Manterola-Garikano
Agirre-Zuazobide

B taldea

Urrutia-Albizu
Uranga anaiak
Arratibel anaiak
Unanue-Unanue
Elustondo-Uranga
Uranga-Irureta

SAN PEDRO SARIA (Emakumeak)

A taldea

A. Egaña-M. Aizpurua
A. Salegi-L. Mancisidor
I. Oiarzabal-I. Zearreta
Olatz eta Begoña Gabarain
M. Dominguez-Z. Bilbao
Idoia eta M. Jose Etxeberria
J. Sorazu-M.J. Ibarguren

B taldea

M. Etxabe-I. Gonzalez
A. Zubimendi-L. Zearreta
O. Grijalba-G. Etxabe
M.R. Alberdi-A. Fernandez
M. Alvarez-I. Beristain
I. Arrona-B. Narziso

SAN PEDRIN SARIA

A taldea

Arteche-Azkue
Apestegi-Ulacia
Huertos-Arrieta
Suarez-M. Alberdi
Jimenez-Lujan

B taldea


Aser-Marcos
Grela-Buenetxea
Ibarra-Gomez
Oiarzabal-J.A. Alberdi
G. Azkue-Amilibia

C taldea

Bilbao-Serna
Prieto-Galarraga
Aizpurua-Alzibar
J.L. Alberdi-Martin
Aizpurua-Egaña

D taldea

Ruiz-Alvaro
Celes-Montxo
Doval-Azkue
Iraundegi-S. Ulacia



Aurrerantzean gero eta lehia gogorragoak izango dira.

*Jesuskoa
Patetxea*



Araia 86 17 39 • C/ikia Zumaia

xirula



TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

20750 ZUMAIA

**EGUZKI
PUB**

**KOKTEL
BEREZIAK**

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

SERIGRAFIA



KUKUTZ

baltasar
etxabe 7 ZUMAIA

Telf:
860569



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067



Landeta ligan eta Mendi-Ondo kopan plaierotako txapeldunak

Azpeitiarrak nagusi Zumaiako hondartzan. Nola diren gauzak. Finalean Axier Kirolak taldea gainditu zuten hiru eta bateko emaitzaz, eta Kopan berriz Mendi-Ondo talde beteranoa erraz gailendu zitzaion Inpernuperi.



Aurten kanpotarrak izan dira nagusi Itzurungo hondartzan.

Kopako txapelketa alde batera uzten badegu, ezin dezakegu esan plaieroak zumaiairrontzat emaitza onak eman dituenik. Herriko txapelketan, eta Ligari dagokionez, Landeta Karrozeriak talde azpeitiarra suertatu zen garaile, azken partiduan Axier Kirolak talde zumaiair gaztea gainditu ondoren. Partidua oso orekatua joan zen eta une batzuetan zumaiairrek berdintzea lortuko zutela bazirudien ere, azkenean Landetaren praktikotasunak etekin handiagoa eman, eta hiru eta bateko emaitzaz irabaztea lortu zuten.

Kopako finalean, Mendi-Ondo talde beteranoak erraz menperatu zuen Inpernupe. Emaitzak argi eta garbi erakusten du elektrikoen nagusitasuna, 6-1. Talde honek berak jaso zuen kiroltasunari dagokion saria. Aurtengo txapelketan zerbait nabarmentzekotan, kanpoko taldeen partehartze handia nabarmendu beharko litzateke, urtero gehitzen doaz gainera.

Zalla galtzaile Zarautzen

Zalla Erretegiak ezin izan zuen aurtengo honetan ere Zarauzko plaiero txapelketa irabazi. Oraingo honetan Asegarce talde zarauztarra izan dute berrero, azken neurketan 2-1 galduz. Apirilaren 20an jokaturako partiduan, haizea izan zen protagonista; honek asko baldintzatu zuen, eta joko eskasa ikustea ez zen harritzekoa gertatu. Lehen zatian Asegarcek aurea hartu zuen, baina bigarrenengoan «oilaskoek» berdindu eta irabazteko ere makina bat gol aukera sortu zituzten. Dena den, zarauztarrek norgehiagoka amaitzeko oso minutu gutxi falta zirela, garaipenaren gola sartu eta txapelketa eskuratu zuten.

Zarauzko plaieroetan parte hartzen duten hirugarren aldia izan da, eta hiruretan garaipena behatz puntekin ikutu badute ere, ez dute lortzen errematatzea. Aipatu, Xabier Dominguez «Piru»-ri eman ziotela entrenatzaile onenaren saria. Merezitakoa, dudarik gabe.



goofy
HAUR JANTZIAK
Amaiako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
20750 ZUMAILA Telefonoa: 862430

julio curiel
G
PELOLOESQ
GIZONEZKOENTZAT
ILE-APANDEGIA
Erribera kalea 23

ITSASPEKO ZINEMA ZIKLOA

Hilabete honetan zehar izango den itsaspeko zinema zikloan honako filme hauek eskeiniko dira:

Maiatzak 15

Pesca submarina extrema (Michel Reboul)

El mar, la farmacia del futuro (M. J. Ortiz)



Maiatzak 29

Little fish in deep water (V. Stone & M. Deeble)

La lubina, señora de los pecios (Michel Reboul)

Saioak **Aita Mari Zineman** izango dira, gaueko **10:15**etan hasita. Sarrera: 200 pta.

SAN PANKRAZIOAK

97

Urtero bezala heldu dira Estazioko festak. Maiatzaren 30ean hasi eta Ekainaren 1ean amaituko dira festa hauek. Ostiralean **Joselu Anaiak** izango dira, larunbatean **Luhartzekin** dantzaldia eta beste hainbat ekitaldi: herri kirolak, haurrentzako jolasak (Ludotekarekin batera), mus txapelketa, trikitilariak... ONDO PASA!



Lehiaketa Goxoa



«Txorta» izan zela asmatu baitzuen. San Markos tarta ederra jaso zuen ordainetan.

Aurreko hilabeteko irabazlea **LIBE AIZPURU** izan zen, herri kirolatan txapelduna **Aitor Korta**

San Telmo hauetan, **Baleikeko** lantaldeko **guardasola** galdu dugu.

Aldizkariaren zerbaki honetan denerfetan ateratzen den pertsonaia hau nor den asmatzen duzuenon artean **TXAPARTEGI GOZOTEGIAk** emandako tarta zoragarri bat zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna Txapartegin bertan edota gure buzoian uztea maiatzaren 23a baino lehen. Zorte on!



MUSIKA

Maiatzak 10, 19:00etan
Kofradiako plazatxoan
UDAL MUSIKA
BANDaren kontzertua

Maiatzak 10, 20:15etan
Parrokian
ZARAUTZ
ABESBATZAREN
kontzertua



Maiatzak 17, 20:45etan
Parrokian
M. CARMEN
AZPEITIA eta SANTI
BANDAREN organo
kontzertua
Maiatzak 30, 22:00etan
Maria eta Josen
MUSIKARI
GAZTEEN
saioa

ANTZERKI EMANALDIA



Maiatzak 9 ostirala
Aita Mari zineman
Gaueko 10,30etan


ESTE MUERTO ES UN VIVO
Algara taldearen eskutik

Maiatzak 15 osteguna
Forondan
Arratsaldeko 7etan

DIPOSITIBA

SAIOA

Apirilaren 26an izandako
argazki irteeran atera
ziren diapositibez
osatutako emanaldia



NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

GURE TXOKOA

TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

expert

ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

Etxezarreta 6
Tel. 861078 ZUMAIA

EGOKI

ERLOJU DENDA

E.Gurutzaga plaza, 6
ZUMAIA

◇ **ARGIA** ◇



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

Zine



Forum

Maiatzak 22, osteguna

CRASH

(1996)

Zuz: David Cronenberg

Akt: James Spader

Holly Hunter

David Cronenberg zuzendari kanadiarra beti saiatu izan da bere filmeekin ikuslea txunditzen, bai hasierako beldurrezko pelikulekin, bai azkenaldian *kultozko* liburuen bermoldaketekin. Esan liteke baita ere zahartzen doan heinean, Cronenberg radikalizatzen ari dela, gero eta filme *zailagoak* ateratzen baitzaizkio. Hor dauzkagu adibidetzat bere filmerik onena den *Inseparables* eta Euskal Herrian ikusi ez den *El almuerzo desnudo*. Oraingo honetan 70eko hamarkadan J.G. Ballard-ek idatzitako liburu bat hartu du azken urte hauetan eskandalu haundiena sortu duen pelikula egiteko: *Crash*.

Crashek fetitxismo istorio bat kontatzen du.

Fetitxismo hau auto istripuek eta hauen ondorioz izandako zauriek sortzen dute. *Crash*, EEBBetan lehen X aretoak zirenetan estreinatu zen; Britainia Haundian, aldiz, oraindik ezin da ikusi, bertako zentsoreek ez baitute baimenik ematen. Hala ere esan beharra dago, filme gogor hau Cannes-eko zinemaldian saritua izan zela.



Oharra: Filme honekin zine-forum denboraldia amaitutzat ematen da. Datorren udazkenean jarraituko du.



IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen duzue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat.

Gazteleraz

Dasta eta goza itzazue ahal duzuen neurrian

- Quien
- Anatomía de la inquietud
- America
- Mafia, historias a la sombra del poder
- El tercer gemelo

Carlos Cañeque
Bruce Chatwin
James Ellroy
G. Fava
Ken Follett



Euskaraz

- Bihotz ausarta
- Larunbatean euria debekatua
- Kakalardoak iluntzean hegaldatzen dira
- Ester erreginarene barauak

Joanes Urkixo
Maite Carranza
M. Gripe
Seve Calleja

- Bihotz sinplea
- Poliedroaren hostoak
- Berririo igo nauzu
- Bizitza pusketak
- Gerbault bakartia

Gustave Flaubert
Joan Mari Irigoien
Xabier Mendiguren
Jabier Muguruza
Xabier Lizardi

Haur/Gaztetxoentzat



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330

NCC

NUEVO CATECISMO CATOLICO

Nuevo Catecismo Catolicoz (NCC) hitz egiten hasiz gero, ezinezkoa zaigu *La Perrera*, *Señor No* edo *Why Not?* taldeak ez aipatzea. La Perreraren %50a ziren

Arturo eta **Gonzalo Ibañez** donostiarrak NCC izeneko proiektu berriari ekin ziotenean, *La Perrera*ren arrakasta ez zen edonolakoa izan; ohiartzun haundiegia atera zuen eta gauzak serioago hartzeko garaiak heldu ziren. Beste %50a *Señor No* izeneko beste proiektua gauzatuko zuten pixka bat beranduago. Gaur egun badute elkarrekiko kooperazio hori, bi taldeek ateratzen dituzten diska guztietan aurkitu baititzazkegu izen amankomunak;

Jorgeren izena adibidez, bai produkzio lanetan, zein kolaboratzaike gisa. Honek gainera, hori gutxi balitz,

Jeff Dahl bezalako kantariaren linea jarraitzen duen *Why Not?* izeneko taldearekin ere jotzen du.

NCC 70eko hamarkadako taldeekin identifikatzen

da. Beraien erreferentzi musikalak *Radio Birdman*, *Ramones*, *MC5*, *The Saints* edo *Deniz Tek* dira. Beste influentzia argia 70eko heavy yankia da (*Blue Oyster Cult*, *Kiss*, *Grand Funk*). Beraien talde maitatuenak ere ez dituzte ezkututzen (*Cerebros Exprimidos*, *Shock Treatment*, *Stiv Bators*, *Dead Boys...*). **Jorge**, **Arturo**, **Julen** eta **Gonzalo** erreferentzia guzti hauek batzen dituztenez, estatu mailan punk-rock eta



abiaduraren generoan talde hoberenetako bat da *Nuevo Catecismo Catolico*. ■


ERROTA
ERROTA
 OPIL - OKINDEGIA
 Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
 Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
 ZUMAIA


JUSTA
 TABERNA
 EGUNEROKO
 BAZKARIAK
 Erribera kalea 20

IHINTZA
 taberna
 Tlf: 860472
 Ortega y Gasset, 3

JOXE
MANUEL
 Kupoia tailer, etxe
 eta dendetara
 eramaten dira.
 Tel: 862347-861001


ilarfi
kontzertuz eta musikaz blai
 ALAI AUZATEGIA, 2 - TLF: 143324



*Motxian
hi!*

Zein: Vicente Royo
Nola: Riojanao

-SAN TELMOAK, FESTA EDO LANEGUNAK?
NIRE USTEZ, SAN TELMOAK ETA ARRITOKIETAKO
EGUNA JAI EGITEKOAK DIRA.
-GUSTOKOA DUZUN EDARIA?
ARDO BELTZA, ONEKOA. ALCANADREKOA ADIBIDEZ.
-SAN MIGUEL KAMIOIAK ITVA PASATZEN AL DU?
IRUÑARA JOATEN NAIZ URNIETAN ASKO EXIJITZEN
BAITUTE.
-NON PASATU DITUZU OPORRIK ONENAK?
GUTXITAN EGITEN DUT BAINA, CANARIASEN.
BERTAN GERATZEN BANAIZ LANA EGIN BEHAR
IZATEN BAITUT.
-MOZKORTZEKO EDARIRIK ONENA?
ARDO ONA, BESTELA BURUKO MINA EMATEN DUTE.
-NONDIK DATORKIZU RIOJANO EZIZENA?
RIOJAKOA NAIZ IZATEZ ETA HORRELA DEITZEN
ZIDATEN HASIERAN BASERRITARREK.
-ETORKIZUNIK BA AL DU LAN HONEK?
ARDOARENA GALTZEN DIHOA BAINA BESTE
EDARIEKIN MOLDATZEN GARA.
-ZER DA ZAILAGOA, ZERBEZA BARRILA BIZKARRA-
RATZEA, ALA EUSKERA IKASTEA?
ZERBEZA ALTZATZEA. NIK EUSKERA KALEAN IKASI
DUT LEHENGO BASERRITARREK EZ BAITZUTEN
ERDERAZ HITZIK EGITEN.
-ASTEAK ZENBAT LANEGUN DITU?
NIRETZAKO 7 EGUN, ETA 8 EZ DITUELAKO.
-BA AL DEZU AMETSIK?
SEMEEI BEREN BIDEA MOLDATU ETA NIRETZAKO,
MUSEAN PIXKAT EGIN ETA OSASUN ONA IZATEA.

SALEROSKETAK

Mobil-home porsche
ederrarekin saltzen dut.
Errioxako Haro herrian
dago instalatua. Tfnoa.
(943) 791396
Arratsaldezu deitu.
(Gregorio)

Macintosh Classic
ordenagailua eta
inpresora salgai.
Tfnoa. (943) 360389

OHARRA

Sonor markako
perkusio bateria bat
salduko nuke. Tfnoa.
861559 (Imanol)
Eguerdian deitu.

Apirilaren 30ean forro
polar beltz bat (kremalle-
raduna) desagertu zen
Amaia plazaan.
Norbaitek aurkitu balu
deitu 143472 telefonora.

AGURRAK

Xe Narci Kanpo
xantokoa.
K.D.T.

X. Egaña, lasai ulertzen
diau Azpeitiarrak kaña
geio eta merkio dituk.
Hoi dituk potruak!!

Ahai Ixak! Ummm!

Urangarin!!! Kamilo,
papparra ikusi zaizu!!!
Mr. Bean-en aldetik.

Peña Abreu: Aupa
Belmon.
T.D.K.

Rikar maitea: Inork ez
zekik Gorria haizen
ala arrea.

M. Akelarre, bost
durogatik amare saltzen
dek hik!

Gure etsai Mendi Ondo
Rikar baleo ez
zenduten pasako
horrein ondo!

Egoitz maitea: ez gaituk
bizitza guztian hire zai
egongo.
Betiko neskak

Ze iten dek haitz azpian lapa
bila? Maoliyuak dittukela,
ostia!!!

Inpernupeko fans beroei!
Animatuko ez balue 6-1
irabazi.

Villanuevako Luisiri:
Zorionak bieha!!

Mofli santelmotako freddia!!
Mofli for alkate!!! Mofli!
Mofli! Mooooooooooooofli!!!!

CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK; HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453

BIZKOR
FOTOKOPIAK



Basadi 1-1, beheko - Tlf: 145120



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 beheko
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
• 24 orduetan
• Zeure etxean

Tel. mugikorra: 908-



Azkenik heldu naiz, hainbeste lan egin ondoren selektibitatea gainditu eta orain gustatzen zaidan karrera ikasi ahal izango dut.

"KARRERA GUZTIAK NIRE ESKU"

UNIBERTSITATEA

SELEKTIBITEA

Gai ezberdinen bitartez bide gehienak irekiak ditut. Orain zer egin behar dudan erabaki beharko dut.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2. KURTSOA | 2. KURTSOA

1. KURTSOA | 1. KURTSOA

INDUSTRIALA | ADMINISTRARITZA

L
A
N
M
U
N
D
U
A

Batxilergoa amaitu dut eta orain mila karrera egiteko aukera daukat edo bestela

Goi Mailako Heziketa Zikloak; hauekin espezializatu profesionala izatera heldu gaitzkeela esplikatut digute eta hala prest egongo nintzateke lanean hasteko.



2. KURTSOA | 2. KURTSOA | 2. KURTSOA

1. KURTSOA | 1. KURTSOA | 1. KURTSOA

ZIENTIFIKOA | TEKNOLOGIKOA | GIZARTEKOA
BATXILERGOA

Orain a ze paranoia!
Zientifikoa...Tecnologikoa...
Gizartekoa...? Jo! Gero edozein karrera egiteko aukera daukadala esan didate, "edozein karrera!", baina oraindik ez dakit zein aukeratu dudana, ingenieritza, medizina edo nik zer dakit oraindik!
Ba! Momentuz pixkanaka joango naiz aukeraketak egiten eta horrela gehien gustatzen zaidana aurkituko dut.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu ondoren, Erdi Mailako Heziketa Zikloa egin dezaket, baina...
BATXILERGOAri ekingo diot.

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

1998/99 ikasturtean
ELIKAGAIEN TRATAMENDUA

IEE-REM

DBH

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

15 urte	2. KURTSOA
14 urte	3. KURTSOA
13 urte	2. KURTSOA
12 urte	1. KURTSOA



Aurrematrrikulazioa maiatzean!!!



ZUMAIKO INSTITUTUA



860809/862320

KOSTA GAS




ZERBITZU OFIZIALA

Etxezarreta, 6
ZUMAIA

Tel. 86 10 78

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK


- Butano
- Propano
- Gas Naturala



CANAL+

SATELITE
CANAL DIGITAL

xirula



Erribera Kalea
Tel. 86 17 05

C+
**BANATZAILE
OFIZIALA**



K/Nagusia, 8 Tel. 14 30 97

C+ **BANATZAILE
ETA INSTALADORE OFIZIALA**

APIRILETIK AURRERA

CANAL+
CANAL SATELITE DIGITAL
Ekin eta Xirularen
eskutik

h i l e r o 2 . 9 9 5 p e z t a t i k